

# kokaina

EU

ailaket!!

## konposizioa, itxura eta aizunketa

01



### kokaina farlopa, perika,...



Koka-landareak dituen 17 alkaloideetako bat da kokaina. Kimikoki benzoilmetilekgonina deritzo.

Parranda-giroan **kokaina-klorhidratoa** da ohikoena. Hauts zuriaren itxura du, eta gehienetan kristalizatua dago.

Honakoekin aizunduta egon daitezke: fenazetinarekin, kafeinarekin, benzokainarekin, lidokainarekin edo paracetamolarekin, bai eta azukre gehigarriekin eta erreakzioak sortutako zikinkeriekin ere. Hortaz, purutasun-maila asko alda daitezke. 2019an jasotako laginen arabera, esaterako, % 88ko purutasun-maila izan du, batez beste.\*

\* Ai Laket!! elkarteak EAEEn egindako analisien arabera datuak.

**Kokaina-klorhidratoaz** gain, honako itxura hauekin ere aurkitu daitezke:

**Koka-hostoa:** herrialde ekoizleetan aurkitzen da. Hauen kontsumoa herrialde horietako kulturaren errotuta dago.

**Koka-orea:** tarteko substantzia da. Jatorrian erabiltzen da, gainerako deribatuak egiteko. Koka-sulfatoa edo bazuco ere esaten zaio.

**Kokaina-basea eta cracka:** koka-oretik eta kokaina-klorhidratotik sortzen dira. Kristal edo harri txikien itxura dute. Erre eta kea arnasten da. Nahasmendu handia dago bi terminoen artean; izan ere, izen bat edo bestea erabiltzen da prozesu kimikoaren arabera, purutasunaren arabera, itxuraren arabera eta abar. Hortaz, ez da gomendagarria izenarengatik bakarrik sustantzia horren ezaugarriak jakintzat ematea.




## dosia zenbatekoa den eta nola hartzen den

02

Europar kokaina-klorhidratoa hartzeko biderik ohikoena sudurretik sartzea (esnifatzea) da. Beste bide batzuk erretzea edo zainetik sartzea dira.

esnifatua



Batez besteko dosia 50 mg da.



## hasierako ondorioak

03

01

Kokainaren ondorioak ez dira beti berberak. Hainbat alderdik du eragina: zenbateko dosia hartzen den, onan-nola hartzen den, aldarte onen ala txarrean egon bitartean hartzen den, zer espero den eta pertsona nolakoa den.

02

Kokainak nerbio-sistema zentrala estimulatzen du, eta ezaugarri anestesiko lokalak ditu. Kontsumitu eta minutu gutxira eraginak nabaritzen dira.



03

Efektupean, arreta, euforia eta estimulazioa areagotzen dira. Errendimendu intelektuala eta eskulanak egiteko trebetasuna hobetzen dira. Energia handia sentitzen da, eta nekea, logura eta gosea murriztu egiten dira. Gozamen eta ongizate sentsazio handia ere eragin ditzake.

04

Bestalde, antsietatea handitzen du. Hala, gehiago edatera, erretzera eta hitz egitera bultza zaitzake.

05

Ohiko dosi baten ondorioek 30 minutu inguru irauten dute. Gero, besteak beste, honako sintoma hauek agertuko dira: apatia, nekea eta berriz hartzeko gogoia.

06

Substantzia horrek odol-hodiak uzkuertzeko indarra du. Ondorioz, arteria-presioa handitu daitezke eta takikardiak eragin ditzake.

07

Gorputzeko temperatura eta arteria-presioa handitu egiten dira, begi-niniak dilatatzeko dira, eta hortzak klaskatzeko joera eragin dezake.

## ondorioak epe ertain eta luzera

04

01

Sintoma ohikoenak honako hauek dira: suminkortasuna, logale izatea, nekea, apetitu eza eta "craving" delakoa (berriro hartzeko gogoia).



02

Kokaina sarri hartzen duten pertsonen artean, albo-ondorio hauek dira ohikoenak: giharretako mina eta sabelaldeko mina, sexu-desira murriztea, gorabeherak hilerokoan, loezina eta apatia. Nahaste depresiboak, paranoiak eta abar ere ager daitezke.

03

Kokainak aise eragiten du tolerantzia, handia gainera. Halaber, menpekotasuna sortzeko ahalmen psikiko handia duenez, zaila da menpekotasuna dugula onartzea.





**KOKAINA + ALKOHOLA**

Bi substantzia horiek kontrako ondorioak izaten dituzte nerbio-sistema zentrolean. Nahasketa gibelera iristean, hirugarren substantzia bat sortzen da: kokaetilenoa, hain zuzen ere. Substantzia horrek nahasketaren toxikotasuna handitu, eta gibleko arazoak izateko arriskua areagotzen du.



**Kontuan hartu ondorengo arrisku egoerak:**



gaixotasun mentalak izatea.

gibleko, pankreako edo bihotzeko arazoak izatea.

sendagaiak hartzen aritzea.

haurdun edo edoskitze garaian egotea.

arriskuko edo arreta handiko zer edo zer egin behar izatea, esate baterako, gidatzea.

hazteko adinean egotea.

**Kontsumitzea erabaki baduzu...**

**Aurretik**

Hartu baino lehen, substantziaren berri jakitea komeni da, gozamina eta arriskuak zuk zeuk neurtzeko.

Informazioa eskuratzeko bide ona Ai Laket!! elkarterko programetara jotzea da. Substantziari buruzko informazioa emango dizugu, bai eta dosiari buruzkoa ere, printzipio aktiboaren kopurua, aizunketa...



Kontsumoa planifikatzea da onena. Mugak ezarri, eta bete itzazu. Horretarako, hobe da hartu nahi duzuna baino gehiago ez eramatea soinean; are gehiago, kreditu-txartela etxean uztea.

Bestelako aisialdi jarduera batzuek egiteak kontsumoak gehiago tartekatzen lagunduko dizu.



Kokaina ongi txikitu, sudurreko zauriak eta hemorragiak saihesteko.



**Bitartean**

Erabili zure turutoa eta ez utzi beste inori. Hartara, gaixotasunak kutsatzeko arriskua murriztuko da (gripea, C hepatitis, ...).

Txandakatu sudurzuloak, sudur-trenkada hainbeste ez kaltetzeko.

Gogoan izan kokainak antsietatea sortzen duela, eta horrek modu konpulsiboan kontsumitzera bultzatzen duela.

Tabakoarekin eta alkoholarekin nahastean, gogoan izan horiek gehiago kontsumitzeko joera izango duzula, eta ondorioz, aje arrastoiarekin erabazteko duzula, eta osasunari ere kalte handiagoa egingo diozula.



Kokainaren eraginpean sexu harremanak badituzu ere, kokaina izatea eta orgasmora heltzea zailagoa izan daiteke. Erabili kondoiak haurdun ez geratzeko eta sexu-transmisiozko infekziozko ez harrapatzeko (kandidak, herpesak, hepatitis, GIB-hiesa eta abar). Kondoia erabiltzearen erantzukizuna zuri dagokizu, ez beste inori. Ez utzi beste inoren eskutan.

Kalte egin badizu komeni da norbaitekin egotea, ongi aireztatutako toki lasai batean, likidoak hartzea eta lasai egotea.

**Ondoren**

Gogoratu sudurzuloak garbitzeaz, itsatsitako hondarrak kentzeko.

Gogoratu galdutako mantenuak berreskuratzeko elikagai egokiak hartzea, bereziki hala nola bitamina eta kaltzio asko dutenak.

Gerta liteke hurrengo egunean nekatuta eta ospinduta egotea. Saiatu, beraz, erabaki garrantzitsurik ez hartzen.

Kokaina-dosia hartu eta 12-24 orduz igartzen da odolean, 2 edo 3 egunera gertu eta 5-12 ordura listuan. Datu horiek gutxi gorabeherakoak dira; izan ere dosiaren edo norberak drogen arrastoak ezabatzearen duen ahalmenaren arabera aldatu egiten dira.



Gogoan izan kalean kokaina edukitzeak edo gehiagoko 600 euro<sup>1</sup> edo gehiagoko isuna dakarrela. Trafikatzeak, saltzeak edo banatzeak kartzela-zigorra dakar.



<sup>1</sup>2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoaren arabera.



**Ai laket!!** irabazi asmorik gabeko elkartera da eta legez kanpoko drogen kontsumitzaile zein kontsumitzaile ohiek osatzen dute. Elkarterak, kontsumo arduratsuen eta drogen erabileraren arriskuak murrizteko ikuspuntuetatik, substantzia psikoaktibo ezberdinekin bizitzeko ikastearen aldeko apustua egiten du. Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren kontsumitzaileak hartu beharreko erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea, 40 etxabe.  
01001 Vitoria-Gasteiz  
(+34) 945 23 15 60  
ailaket@ailaket.com  
www.ailaket.com